

Emakumea زن

Bizitza زندگی

Askatasuna آزادی



Iran eta Afganistango herritarren lekukotza gordina

Andoainen bizi direnen lekukotza jaso du Aiurri astekariak / 8-9

OZAN KOSE VIA GETTY IMAGES

Jendetza Andoaingo Gau Beltzan

Arimen gaua delakoa Gau Beltza bilakatu zen urriaren 31n. Euskal ohitura errotzeko ekimena bikain abiarazi du Larramendi Bazkunak, hainbat eragilerekin lankidetzan / 5-7



**Lide Serrano
Belaustegigoitia,
Urrietako
Euskaraldiko
koordinatzailea** / 2-3



**Herri bilera deitu du
C2 egitasmoaren
aurkako plataformak,
larunbat
honetarako** / 4



**Xabier Madina,
martxa
nordikoko
sustatzaileari
elkarrietzeta** / 12-13

bertako - REKIN BAI!

gogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARRDA
848 870 917

www.bertako.eus



Lide Serrano Belaustegigoitia, Urnietako Euskaraldiko koordinatzailea. AIURRI

“Inflexio puntua da Euskaraldia, egunerokoan ditugun ohituren alde”

LIDE SERRANO BELAUSTEGIGOITIA EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA URNIETAN

Azken egunetako prestaketa-lanetan murgildu da herriko Euskaraldiaren koordinatzailea. Hirugarren edizioa berriro ere martxa hartzeko aukera dela uste du

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hemen dator “hitzez ekiteko garaia”; hemen da, ate joka, Euskaraldia: azaroaren 28tik, abenduaren 2ra bitarte, kalera aterako dira ahobiziak eta be-

larriprestak, ariguneak. Hamabostaldi hori prestatzeak, ordea, badu erantzukizuna. Hain zuzen ere, horretan dabil Lide Serrano Belaustegigoitia Urnietako Euskaraldiaren koordinatzailea.

Gero eta gertuago dago Euskaraldia. Zu ere azken txanpan murgilduta izango zara...

Orain, girotze-fasean gaude, herritarrak hurbildu daitezen eta Euskaraldia hemen dagoela

jakin dezaten. Askotariko ekin-tzak ari gara pentsatzen, deialdi gisa: handiena azaroaren 5ean egingo dugu, larunbatarekin. Zubitxo plazan elkartu gara (Guria tabernaren eta poliki-roldegiaire artean), eguerdi partean. Alde batetik, gune ibiltaria egongo da, Topaguneak ipinitako furgoneta, Euskaraldiko materiala saltzeko. Beste alde batetik, banderak ere izango ditugu salgai 5 eurotan.

Horrez gain, Euskaraldiko erronkaren panela ipiniko dugu, herritarrek gainerako herriki-deekin aurtengo edizioari lotuta dituzten erronkak eta konpromisoak partekatzeko.

Era berean, herriko eragilean emanaldiak izango ditugu. Egape Dantza Taldeak erakustaldia egingo du, Euskaraldirako espresuki prestatutako pieza batekin, hain justu ere, edizio honetako kanta koreografiatu dute dantzariak. Ildo beretik, zenbait kanta abestuko ditu Kantazaun taldeak, baita gaia-ekin lotutako hainbat bertso bota ere herriko bertso eskolak.

Lehengo astetik aurrera, Tiktokaldia ipini dugu martxan: hutsunea dago gazte jendearen parte-hartzean; horrela, Tiktok aplikazioak duen pisua ikusita, eta sare sozialetan euskararen presentzia urria dela jabetuta, honako proposamen hau ipini dugu martxan: aurtengo edizio-ko kantarekin Tiktok-a asmatzea. Parte-hartzaileen artean, zozketa egingo da, eta euskararekin nahiz euskal kulturarekin zertikusia duen oparia banatuko da. Euskaraldia hasten den egunera arte izango du jendeak aukera parte hartzeko. 13-16 urte bitarteko nerabeek ere izango dute parte hartzerik, nahiz eta horiek ez ditugun sare sozialetan zabalduko, irudien babes arauengatik; aldiz, 16 urtetik aurrera, Tiktokean hala onartuta, beren bideoak zabaldu egingo dira. Eta, nola egin hori guztia? Tiktoken “euskaraldia.urnieta” kontua jarraitu, bideoa egin kantaren zati batekin, traolak ipini, @euskaraldiaurnieta aipatu, eta, listo!

Azaroaren 12an, euskarazko bi yoga ikastaro egingo ditugu, doan, ordubetz, Saroben, Oihana Mellado urnietarraren eskutik: goizeko 10:00etan eta eguerdiko 12:00etan. Jende asko mugitzen duen ariketa da yoga, bada, hori ere euskarara ekarri

nahi dugu. Izena emateko, Euskaraldiko telefono-zenbakira idatzita edota deituta (688 60 37 77), baita helbide elektronikoan mezua utzita ere (urnieta@euskaraldia.eus).

Bigarren edizioa pandemian izan zen; indartsu al dator aurtengoa? Berriro martxa hartu beharrean ikusten dut Euskaraldia. 2020. urtekoa nahiko ikusezina egin zitzaidan, pertsonalki, eta, orain, bultzada hartu behar dela uste dut. Ahobizietan jarri da begirada, erdigunean ipini dira, indar gehien duen kolektiboa plazaratzeko. Entitateei ere, ariguneei, garrantzi handia ematen ari zaie. “Hitzez ekiteko garaia” lelopean dator aurtengo edizioa, lehen hitza euskaraz emateko, jendarteko askotariko eremutan euskaraz jarduteko.

Hasi da jada izen-ematea Urnietan; zer moduz?

Gehiago behar ditugu. Link-a zabaldu dut, baita izen-emate postuak antolatu ere, aurrez aurreko tratua izateko herritarrek. Izan ere, jende askorentzat muga da bide elektronikoa, batez ere, adinekoentzat. Hala, Euskaraldiko telefonora idatzita ere eman daiteke izena, baita eskuz egin ere.

Aurretik parte hartu duenak ez du izena eman beharko, berretsi, soilik. Inork rolez aldatu nahiko balu, berresteko unean adierazi beharko du.

Aurten ere, belarriprest nahiz ahobiziez gain, ariguneak ere izango dira, aurreko edizioaren antzera. Zein nolako harrera izan du ariguneeen proposamenak Urnietan?

Orotara, 32 arigune ditugu. Irailaren 27an hartu nuen nik koordinatzaile zeregina eta Sammielak tarteko, hilaren 30ean amaitu zen entitateek izena emateko aukera. Hortaz, zapore gazi-gozoa utzi dit horrek, ez baitut denborarik izan aurrez aurre guztiekin hitz egiteko. Dena dela, joan den edizioan baino hamabost bat gehiago izango dira aurten.

Arigune gisa herriko bi ikastetxeak izango ditugu. Lan handia egiten ari dira, barne lan-keta sakona. Eusliser proiektua ere tartean dago: AEKtik abiatutako egitasmo indartsua da. AEK-ko kideek ikasgelako irakurketa egiten dute, hizkuntza ohiturak arakatzeko.

Horren harira, eusliserak aukeratzen dituzte; ikasle ko-



Euskaraldia Urnietan, artxiboko irudian. AIURRI

puru zehatz horri formakuntza ematen diete, gerora, beraiek bere parekideei erreplika egiteko.

"GAZTEEN FALTA NABARITZEN DUT, PROPOSAMEN BERRIAK AILEGATU DAITEZEN"

Beroketa-fasean, euskara batzordea ipini da martxan. Zein nolako harrera eduki du?

Urnietan aktiboki Euskaraldian lan egiteko talde bat da. Urriaren 13an antolatutako bilerara zazpi kide gerturatu ziren, eta gazteenak 40 urte zituen. Eragile falta beraz, kuantitatiboki, baina era berean, adinari dagokionez, kualitatiboki. Gazteen falta nabaritzen dut, aurrera

eramateko proposamen berriak ailegatu daitezzen.

Joan den Aiurri astekarian Jon Lizaso herriko euskara teknikaria

"EUSKARA EZ DA IRISTEN ATZERRIKO JATORRIA DUTEN HERRITAR HORIETARA"

elkarriketatzen zuen Andoni Urbisondo kazetariak. Datu kezagarria plazaratu zuen hark: euskararen ezagutza Urnietan % 75ekoa da, baina erabilera % 21ekoa da. Zer deritzozu?

Oso larria da egoera. Are gehiago, kontuan izanda, Urnietan bizi garela, Gipuzkoan, euskara gehien erabiltzen den lurraldeetako batean.

Non jarri begirada horri aurre egiteko?

Migratio-fluxu nabarmenak dauden jendarte batean bizi gara. Hala, iruditzen zait euskara ez dela iristen atzerriko jatorria duten herritar horietara, izan gazte, izan heldu. Orduan, beste formula bat asmatu behar da kolektibo horrek gure hizkuntza eta kultura maite eta bere senti ditzan. Euskal identitatetik hurbil bizi den jendea Euskaraldiaren oihartzuna iristen zaio, baina ez gara iristen ari jendarteko beste ertzetara; are gehiago, dinamikatik kanpo sentitzen direla esango nuke, baztertuta. Izan ere, Ekuatoretik hiru seme-alabekin, bakarrik datorren emakumeak, eta adineko pertsona baten zainketan buru-belarri lanean egongo denak, zein harreman izango du euskararekin? Hor, besteak beste, badago zer hausnartua.

Bestalde, lotsa ere jokoan sartzen dela esango nuke: "Barre egingo didate, ez dut perfektu hitz egiten, oihura falta daukat, jariotasun eza..."

Euskaraldia bezalako proposamenek lagundu al dezakete hutsuneak aurre egiten?

Bai, baina, esan dizudan bezala, beste lan ildo bat sortu behar da kanpotik hona bizitzera datorren jendearekin: euskararen murgiltze inklusiboa, parekidea. Testuinguruan kokatu eta hurbilpen bat eman, beren hizkuntzaren eta gurearen artean, konexio puntuak topatzeko.

Euskaraldiak irauten duen bitartean, txapa jantzi bai, baina txapa horri dagokion rola betetzeko konpromisoa behar da, ezta?

Inflexio puntua da Euskaraldia, egunerokoan ditugun ohituren alde. Hausnarketarako unea da, lan egiteko, eta lorpenak ikustarazteko, baina, jarraipena izan ezean, ez du ezertarako balio. Pertsonaletik asko badu ere, kolektiboa ere behar du ariketak. **Euskaraldia eta gero zer? Hizkuntza ohituretan benetan utziko al du arrastorik?**

Arrastoa utzi behar du ariketak. Bihotzetik gertu zintzilikatzen dugu txapa, bada, horrela izan dadila urteko gainerako eguntan ere. Ariketatik kanpo, aurrerapausoak ematen jarraitzea da helburua.

"HAUSNARKETARAKO UNEA DA, LAN EGITEKO ETA LORPENAK IKUSTARAZTEKO"



errigora

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da



eskatu saskiak eta eman itauspoa euskarari







POSTONTZIA

HERRI PLATAFORMA ANDOAIN

Herri bilera, datorren azaroaren 5ean



Plataformaren banderola. AIURRI

Azken egun hauetan, zenbait politikok hartutako erabaki arduragabeek Andoingo herriaren etorkizuneko garapena moztu dezakete, gaurko NI bidearen trazatuak sortzen dituen afekzioak, arauz kanpokoak, betirakotuz.

Joan den ostiralean, urriak 28, BIDEGIko Administrazio-Kontseiluan onartu zuten NI eta A15 bideen arteko lotura egiteko proiektua idazteko esleipena, EAJ eta PSE ordezkatzaren duten kontseilarien aldeko botoekin eta EH-Bildu, Podemos eta PP ordezkatzaren dutenen kontrako botoekin.

Prozedurak azkartzeak eta presazko jokaerak ez datoz bat instituzioekin eduki beharreko errespetuarekin, batez ere, Andoingo Udaleko Batzar Nagusian, irailaren 12an, onartutako mozioaren 2.

puntuak argi eta garbi dioenarekin: “C2 proiektuarekin planifikatutako ekintza guztiak gelditu eskatu Gipuzkoako Diputazioari, Plangintza Orokorrean azaltzen diren jardueraildoekin bat letorkeen gaur eguneratutako proiektu berri bat birpentsatu eta idatzi ahal izateko”.

CII proiektuak kaltetutakoen Plataformak herritarrak informatu nahi ditu proiektu honen zehaztasun guztiak azalduz. Horretarako, herri bilera batera gonbidatzen ditugu herritar guztiak, datorren azaroaren 5ean goizeko 11:00tan hasiko dena Bastero Kulturguneko auditorioan.

CII proiektuak herritar guztiak erasutzen dituelako eta Andoingo etorkizuna jokoan dagoelako, interesatuta dagoen andoindar guztiak etortzea espero dugu.

Bidegiako Administrazio-Kontseiluan gertatutakoaren balorazioa

CII proiektuak kaltetutakoen Plataformak ondorengoa adierazi nahi du ostiralean BIDEGIko Administrazio-Kontseiluan gertatutakoaz.

Ostiralean, urriak 28, BIDEGIko Administrazio-Kontseiluan onartutakoa NI eta A15 bideen arteko lotura egiteko proiektua idazteko esleipena izan zen, EAJ eta

PSE ordezkatzaren duten kontseilarien aldeko botoekin eta EH-Bildu, Podemos eta PP ordezkatzaren dutenen kontrako botoekin.

BIDEGIko Administrazio-Kontseiluan onartutakoak ez du inolaz ere NI eta A15 bideen arteko lotura egiteko trazatua erabakitzen. Ziur gaude Gipuzkoako Diputazioak proposatutakoa, CII deitutakoa, erabat bideraezina dela hainbat faktoregatik eta hori horela dela frogatuta geldituko da era oso nabarmenean.

Gai honetan Gipuzkoako Diputazioa prozedurak azkartzeko egiten ari denak atzera biderik ez dagoela sinesaraztea da, jendearengan apatia sentimendua sortzea helburu duena.

Prozedurak azkartzeak eta presazko jokaerak ez datoz bat instituzioekin eduki beharreko errespetuarekin, batez ere Andoingo Udaleko Batzar Nagusian, irailaren 12an 13 aldeko botoz (EH-Bildu, PSE eta Podemos) eta EAJren 4 abstentzioz, onartutako mozioaren 2. puntuak argi eta garbi dioenarekin “C2 proiektuarekin planifikatutako ekintza guztiak gelditu eskatu Gipuzkoako Diputazioari, Plangintza Orokorrean azaltzen diren jardueraildoekin bat letorkeen gaur eguneratutako proiektu berri bat birpentsatu eta idatzi ahal izateko”.

Andoingo alkate andereak eta bere alderdiko zinegotziek udalbatzan hartutako jarrera irmoekin alderatuta, BIDEGI PSEk mantendutako jarrerak iruzur egin digula, harrituaz gainera. Jarrera hori Andoingo herritarren aurkakoa da, Andoingo Udaleko zinegotziek onartutako akordioek aurkakoa eta udalbatzan bere alderdiko ordezkari gorena denaren posturaren aurkakoa. Gipuzkoako PSE gonbidatu nahi dugu bere jarrera alda dezala gai honetan eta herri honetako alkate andereari bide berri bat irekitzen eta proiektu bat lideratzen lagundu diezaiotela, andoindarrak eta beraien interesak babestu, ez beste ezkutuko eta ilunak.

CII proiektuak kaltetutakoen Plataformak badaki, noski, Gipuzkoako Diputazioak mahai gainean jarritako proiektua, CII deitu dena, ezin izango dela aurrera atera zentzugabekeria izugarri bat delako eta, horretarako, hemendik aurrera, herritar guztiak informatuko ditu hartu beharreko erabakiak era kontziente bat edukiaz har ditzaten. Horregatik, lehen herri ekintza bezala, azaroaren 5ean, goizeko 11:00etan, egingo den bilera baterako deia egingo dugu Bastero auditorioan. Baita ere, Plataforma Gipuzkoako Batzar Nagusietara joango da

azaroaren 9an goizeko 09:30ean. Talde ahal den zabalena joan ahal izateko autobusak jarriko dira, betiko lekuetatik aterako direnak. Ahal bezain azkar jakinaraziko dugu.

Bukatu aurretik, jakinarazi nahi dugu prozedura azkartze hau eta zenbait ordezkari politikoen errespetugabea eta arduragabea jokabideek herritarrak etsipenera eramatea, andoindarrak ilusio gabe uztea dela. Azkarrak izan behar dugu eta herri moduan ekin, denok batera gure interesak defendatzeko. CII proiektuak kaltetutakoen Plataformak garbi utzi nahi dugu hemendik aurrera ere herritarren helburuak aurrera ateratzen segiko dugula.

Azkenik, Andoingo 600 familia baino gehiago eskertu, banderolak balkoietan jarritz eskaerak zabaltzeko bere ahalegina egitegatik. Oraindik, banderola gehiago badaudela jakinarazten dugu, eta honako lekuetan daude eskuragarri: Coviran Karrika, Urrats, Ernaitza, Li, Gorostidi, Stop eta Bazkardoko Comestibles Telletxea. Denak animatu nahi ditugu jaso dezatela bat eta lehioetan jarri, andoindarren etorkizuna hobea izan dadin, gure ilusio eta amets asko egi bihurtu daitezten.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

GAU BELTZA

**ANDOINGO
ARIMEN GAUAN
GAU BELTZA
NABARMENDU ZEN**





Irunberri elkarteak Beldurraren pasabidea antolatu zuen, eta baita gaztainak erre ere. AIURRI



ADI! "LEBI" ZEZEN-SUZKOA DATOZEN EGUNETAN KALEZ KALE IBILIKO DA-ETA!



Gau Beltzerako propio atera dira kapelak. Keinu izan dira salgai. AIURRI



Batzokian, txokolate goxoa prestatu zuten, askari goxoa eskainiz 350 lagunei. AIURRI



Otsagiko mozorroak Andoainen. Eguneke ezuste atsegina izan zen. AIURRI

Gau Beltza Aiurri.eus gunean



Argazki-bildumak



Bideo sorta zabala

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

ESKERRIK ASKO



Batzokia, Irunberri eta Katoi elkarteak; Keinu, Urrats eta Anaiak eta Gau Beltzaren dekorazioa erabili zuten merkatalguneak; Lebiton konpartsa; Maizorriko txalapartariak; Lur "amonatxo"; Andoaingo Udaleko Enplegu Ionsaila, Kultura Ionsaila; Aiurriko eta Larramendi Bazkuneko kideak; eta, nola ez, Gau Beltzarekin bat egin zuten herrikide guztiak.



Kalejira ikusgarria Andoainen, Kultura Sailari esker. AIURRI



Adarra joz hasiera eman zioten Gau Beltzari. AIURRI



Gau Beltzeko mozorroduna ipuinerako Leitzarango Lur bilakatu zen!



Jendetza elkartu zen Goikoplazan. AIURRI



Otsagi aldeko mozorroak, Andoaingo kaleetan. AIURRI



Txokolate jatean lana gogotik egin zuten Bazkuneko eta Aiurriko kideak. AIURRI



Maizorri txalaparta taldeko kideak, Etxeberrieta plazan. AIURRI

Mikel Arberas ANDOAIN

Azken asteetan, ekimen ugari egiten ari dira munduan afganiarrei eta irandarrei elkartasuna zein babesa erakusteko. Izan ere, irailean, Mahsa Amini 22 urteko neska kuduaren hilketak ekialdeko herrialde batzuen politika-sozial patriarkalak, matxistak eta errepresiboak azaleratu ditu. Ez hori bakarrik, erregimen autoritarioek sortako ezegonkortasuna medio, asko dira beren herrialdea zein familia atzean utzi eta Europako herrialdeetan egonkortu direnak. Horietako bi dira Mehrdad Ebadi eta Manizha Ahmadzai. Lehen, jatorriz, irandarra da, baina urteak daramatza Andoainen bizitzen; bigarrena afganiarra da eta duela zortzi hilabete iritsi zen herrira, Talibanak boterea berreskuratu ostean, hango egoera lasgarria jasan ezinda.

Nortzuk dira Mehrdad Ebadi eta Manizha Ahmadzai?

Manizha Ahmadzai: 28 urteko errefuxiatu afganiarra naiz eta nire jaioterrian ginekologoa lanean aritzen nintzen. Zoritxarrez, orain, langabezian nago; izan ere, nire unibertsitateko tituluaren homologazioaren zain nago. Hala ere, ginekologa batekin boluntariotza lanean nabil Gipuzkoako poliklinikan, beraz, ez daukat geldirik egoteko astirik. Ondoren, tituluaren homologazioa lortuko banu, MIREko azterketa egin beharko nuke lanean hasi ahal izateko. Duela zortzi hilabete bidaiatu nuen hona eta errefuxiatu gisa bizi naiz Andoainen, Talibanen gobernutik ihes egin ondoren.

Mehrdad Ebadi: Ni, orokorki, irandarren egoeraz jardungo naiz, asko baikara bertako estatutari faxistaren ondorioz, emigratu genuenak. Zortzi milioitik gara, gutxi gorabehera, mundu osoan banatuta gaudenak. Kasuaren larritasuna aintzat hartzeko, jakin ezazue kopuru hori irandarren % 10 ingurukoa dela.

Eta zergatik ihes egin? 1979. urtean Jomeinik boterea eskuratuta Iranen teokrazia bat ezarri zuelako edo zehatzago esanda gobernu erlijioso-faxista bat. Gobernu horrek, historian kalte handien eragin dituen bi osagaiak biltzen ditu: erlijioa eta faxismoa. Horiek horrela, 43 urte daramatzen borrokaz ari gara hizketan, zeinak beste hainbeste iraungo dituen, beste



Segurtasunagatik aurrez aurreko argazkirik ez egiteko eskatu digu Manizhak. AIURRI

"Estatu faxista-erlijiosoak inkisizio garaira garamatza"

MEHRDAD EBADI ETA MANIZHA AHMADZAI IRANDARRA ETA AFGANISTANDARRA

Salaketa eta elkartasun ekimen ugari egin dira mundu osoan, Mahsa Aminiren hilketa medio. Gehiago jakiteko, iraniar eta afganiar banarekin elkartu da Aiurri

herrialdeen begiradapean. Afganistango egoera ere lasgarria da eta borrokak ez du etenik. **Zuek biok Andoainen bizi zarete, egun. Alabaina, pentsatzen dut, Afganistango eta Irango egoera gertutik jarraitzen egongo zaretela.**

"ARRAZISMOA MODU BATERA ALA BESTERIA EGUNERO PAIRATZEN DUGU"

MANIZHA AHMADZAI

M.E: Guztiontzat ulergarria egiteko adibide bat esan beharko banu, frankismo garaiko 36ko Gerra bizitzen ari den familia batekin alderatuko nuke. Herri-tar asko desagertu dira edo desagerrarazi dituzte, familiak ugari banandu egin dira eta hilketak normaltasunez hartzen dira. Egunean bizi dira herritar gehienak, ez baitakite bihar-munean zer jazoko den.

M.A: Kezka handiz ikusten dut nire jaioterriko egoera; izan ere, familiako kideak Afganistanen

bizi dira; ez hori bakarrik, niregati galdetu izan diote familiari, mehatxu artean. Hala ere, behintzat, nire alabak Euskal Herrian oinarritzko eskubide batzuk bermatuta ditu. Afganistanen, berriz, eskubideak oso

"AMINIREN HILKETA LEHERGAILUA EZTANDARAZI DUEN TXINPARTA IZAN DA"

MEHRDAD EBADI

murriztak dira eta, are gutxiago, emakumezkoa izanda. Bi herrialdeen arteko aldea, irudika ezina da.

Manizha, kontatu iezaguzu afganiar errefuxiatu gisa bizitzea zer den.

M.A: Arestian esan bezala, hemen, oinarritzko eskubideak bermatuta daudela esan genezake, baina, oro har, kanpotarrok jendartetik jasotzen dugun tratu eta begiradak mespretxuzkoak izan ohi dira. Arrazismoa, modu batera ala bestera, ia egunero pairatzen dugu, arlo askotan, gainera; izan anbulatorioan, kalean, dendetan edota etxebizitzak bilatzerakoan, beste askoren artean. Adibide bat jarriko dizut: bizitzeko gela baten bila ari naiz Fotocasa eta Idealista bezalako webguneetan, baina oztopoak besterik ez ditzakidate jartzen. Sarritan, kanpotarrei edo etorkinei alokatu nahi ez diela esaten didate edota aitakiak bilatzen dituzte. Mingarria da niretzat horrelako jarrekin topo egitea. Oso jendarte aurreratu den arren, lanketa handia egin behar da arrazismoaren eta xenofobiaren gainean. **Emakumeen bizi baldintzak oso zailak dira Afganistanen eta Iranen, beste batzuen artean. Herrialde patriarkalak dira, autoritarioak eta emakumeentzako eskubideak existitzen ez direnak. Itzaletik argirako bidean, jendartearen elkartasun olatu bat sortu da, poliziak Mahsa Amini 22 urteko neska gaztea hil zuela medio, hiyab-a gaizki jarria zuelakoan atxilotu zutenean. Irtenbideren bat lortzeko itxaropenik ba al duzue?**

M.E: Gobernatzen ari den estatutari faxista-erlijioso patriarkalak inkisizioaren garaira garamatza, 500 urte atzera. Izaera erlijioso autoritarioa oinarri duen Errepublikak Islamikoak osatzen du Irango gobernuak. Afganistango kasuan, Talibanak dira gobernuan daudenak.

Ez hori bakarrik, gobernu teokrazista hauek santutasun izaera hartzen dute. Hau da, jainkoak bidalitako mezularien rola hartzen dute. Zer esan nahi du horrek? Edozein manifestazio, protesta edo agerraldi Jainkoaren eta erlijioaren aurkako ekintzatzat dituztela, hortaz, parte hartzaileak ere herejatzat hartzen dituzte. Jainkoa bat eta bakarra da, handiena eta ez da besterik onartuko. Hori guztia azalduta, emakumeak dira, gehien bat, jazarpen-sozial han-

diena jasaten dutenak, sistema-
ren izaera ideologikoa medio.
Hari beretik tiraka, jazarpen
lazgarri hori gutxiengo taldeek
ere pairatzen dute: LGTBIQ+,
bestelako talde erlijiosoak, go-
bernuarekiko bestelako pentsa-
mendua dutenak eta abar.

Gobernu hauek Jainkoan bes-
terik ez dute pentsatzen. Helbu-
ru nagusia, herritarrak erlijioa-
ren bidetik eramatea da, eta,
beraz, herrialdeak dituen bene-
tako arazoak ez dituzte aintzat
hartzen, hala nola osasungintza,
enplegua, industria eta nekaza-
ritza, beste askoren artean. Or-
duan, zure galderari erantzunez,
bi herrialdeetan gertatzen ari
den herri-altxamendua jazoera
askoren ondorio da eta Mahsa
Amini gaztearen hilketa leher-
gailua ezandarazi duen txin-
parta izan da. Egoera larri guz-
ti horrek guztiak herritar kua-
lifikatuen emigrazioa bultzatzen
ari da, herrialdearen kalterako.
**Aipatu duzuen guztiarekin, bi he-
rrialdeen gainbehera uste baino
gertuago dagoela dirudi...**

M.E: Bai, zalantzarik gabe. Hortxe
doa beste datu esanguratsu bat:
Iraneko droga-menpekotasuna-
ren kopurua 5 milioitik gorakoa
da, hau da, biztanleriaren % 6
a drogen atzaparretan murgil-
duta dago. Gainera, munduko
exekuzio tasa altuena duen he-
rrialdea da Iran. Urtero 700dik
gora pertsona hiltzen dituzte,
hots, egunero bi. Hori gutxi ba-
litz, Sharia lege sistema islamia-
rra ezarri dute, zeinak, delituren
bat egotziz gero, gorputzeko
atalak moztu, latigoarekin jo
edota harrikatzeak egingo di-
tuzten zigor modura, beste ba-
tzuen artean. Bitartean, mende-
baldeko herrialde dekomokra-
tikoek, ez dute laguntzen.

M.A: Afganistanen ere arazo
larria dago drogarekin; 6 milioi
biztanle dira, gutxi gorabehera,
zuloan sartuta daudenak (% 17).
Iranen eta Afganistanen, ema-
kumeen testigantzek ez dute ia
ezertarako balio, ezin dute abes-
tu edota dantza egin, ezin dute
bizikletan ibili, ezin dute gizo-
nezko baten baimenik gabe bi-
daiatu, eta, horrela, beste ha-
marnaka arau pentsaezin.

**Manizha, oker ez banago buruko
zapia ez jartzearen erabakia hartu
zenuen.**

M.A: Ez dut Afganistanetik ihes
egin, nire kultura atzean utzita,
Andoainen ere hango lege ma-
xistak betetzeko. Errefuxiatua



Mehrdad Ebadi eta Manizha Ahmadzai elkarrekin solasten. AIURRI

afganiarra naiz, baina, hemengo
herritarrak bezalaxe, aske eta
jazarpenik gabe bizi nahi dut.

M.E: Gauza batzuk ulergaitzak
egiten zaizkit. Zergatik onartzen
dute giza eskubideen aldeko
talde eta erakunde feminista
batzuek, emakumeek *chador*
edota burua estaltzeko zapiak
jartzea, ohiko tradizio bat izan-
go balitz bezala? Hau ez da onar-
garria! Berririo diot, zapia ideo-
logia matxistaren eta patriar-
kalaren ispilu dira!

**Kronologia egitearren, Estatu Ba-
tuek Afganistango gerraren
bitartez herrialdea hartu zuten
2001eko urrian, eta 2021 urtera
arte iraun zuten; 20 urtez, Talibanak
itzalpean egon ziren. Iaz, estatu-
batuek Afganistanetik alde egin
ostean, Talibanen esku geratu zen
herrialdea, abuztuaren 15ean. Mun-
duko hedabide guztietan albiste
izan zen gertakaria. Nola bizitu
zenuen egoera hura?**

**"EGOERA HURA
BERRIRO ERE
JASAN BAINO,
NAHIAGO NUEN HIL"**

MANIZHA AHMADZAI

M.A: Talibanak boterea berres-
kuratu arte, 'normaltasunez'
igarotzen ziren egunak. Bizitza
ohiko zela esan genezake. Igan-
de batean jazo zen guztia, lanean
nongoenean. Lan egiten nuen
lekua AEBetako enbaxadatik
gertu zegoen, beraz, lehen me-
mentotik tentsioa gertutik su-
matu nuen. Bat-batean, enbaxa-
dara helikopteroak gerturatzen
hasi ziren, bertako langileak eta
materiala ateratzeko. Orduan,
lagun batek deitu eta zera esan
zidan: "Dokumentu batzuk si-
natu eta eskuratu behar dituzu,
bestela, horiek lurraldea berres-
kuratzen dutenean, orain arte
lortutakoak ez dizu askorako
balioko". Dokumentu hura si-
natu ostean, kaleetan beste giro
bat sumatzen zen; beldurra na-
gusitu zen eta garraiobide guz-
tiak gainezka zeuden. Nik, di-
rutza ordaindu behar izan nion
taxista bati etxera itzultzeko.

Ordu batzuetara, kaosa nagu-
situ zen. Gutxinaka jendarteak
aldatzen hasi zen: emakumeak
zapiak janzten hasi ziren, he-
rritarrak ihes egiteari ekin zio-
ten, lapurretek nabarmen egin
zuten gora eta erasoak nonahi.
Anarkia totala. Trantsizioa egoe-

ra batean murgildu zen herrial-
dea. Behingoz, etxera iritsi nin-
zenean, ezin sinisturik nengoen.

Hurrengo bi hilabeteak des-
kribaezinak izan ziren, amets
gaiztoa. Lanera gizonezko batek
lagunduta joan behar nuen, bai-
na anaiak ezin zuenez, lanera
joateari utzi behar izan nion.
Arazoak nonahi.

**Eta nola egin zenuen ihes Afganis-
tandik?**

M.A: Afganistango egoera lazga-
rriaz gain, arazo familiarrak
nituen. Nire senar ohiak Tali-
banen antzerako pentsamendua
zuen, beraz, gauza asko debeka-
tzen zizkidan, tartean, ikastea.
Egoera jasanezina zen eta ba-
nandu egin nintzen. Ordea, Ta-
libanak boterea berreskuratu
zutenean, beste epaitegi batek
nire dibortzioa baliogabetu eta
berarekin itzultzera behartu
ninduen. Egoera hura berririo
jasan baino nahiago nuen hil.

Hori guztia esanda, Afganis-
tango eta Pakistango mugara
zeharkatu nuen gau hotz batean,
eta Espaniako enbaxadara joan
nintzen babes-politiko eskatze-
ra. Handik gutxira, baimena
eman zidaten eta hona etorri
nintzen.

**Beraz, guztia sakrifikatu behar izan
duzu.**

M.A: Bai, halaxe da. Estatubatua-
rrek saldu egin gintuzten, ba-
patean, herrialdetik joan zire-
nean.

**Nola aurreikusten duzue etorkizu-
na bi herrialde horietan?**

M.E: Zaila. Mundua gobernu bo-
teretsuen artean banatuta dago,
besteak beste, Txina, Errusia,
Europar Batasuna edota Estatu
Batuak; bada, Iran bezalako
herrialdeak boteretsuen txo-
txongiloak dira. Horiek horre-
la, nahi bezala erabiltzen dute
herrialdea, herritarren kalte-
rako. Etorkizun ezjakina dugu
aurretik.

M.A: Talibanen gobernupean
Afganistango etorkizuna iluna
da, ezjakina eta arriskutsua.
Mendebaldeko herrialdeen la-
guntza ezinbestekoa da, baina,
benetan, oso zaila ikusten dut,
ia ezinezkoa.

**"IRAN MUNDUKO
EXEKUZIO-TASA
ALTUENA DUENA
HERRIALDEA DA"**

MEHRDAD EBADI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Egurra inork gutxi baino hobeto irakurtzen du Luis Eraso artisau berastegiarrak. Hamarkada luzeak igaro izan ditu egurretik, tolesturak, zirrikituak eta kolore ederrenak nabarmen-tzen, enbor batetik figura erakargarriak ontzen. Nola, baina? Motozerrarekin. Hala, ikusgai dago bere obra Urnietako Oianumen, hilaren 13ra bitarte. “Ni egiten aritu naizen bezain gustura egon bazara ikusten, ni konforme”, dio sarrerako horma-irudiak.

Noiztik duzu harremana egurrekin?

Gaztea nintzela, hamalau urterekin, eskola amaitu eta lanean hasi nintzen. Hasiera batean, irabazi handiak omen zituen gremiora jo nuen, galdaragintzara. Tailer txiki asko izaten ziren garai hartan, eta asko eta asko itxi egin ziren urteekin, baita neurea ere. Ondoren, hiru urtez, mendian izan nintzen lanean, zuhaitzak moztzen.

Aizkolari gisa ere ibilitakoa zara.

Herriko festetan, asko ibilitakoa naiz. Munduko Aizkolari Txapelketa egin zen Atotxan, eta bostpasei nazio etorri ziren lehian. Bi australiar hemen gelditu ziren pare bat astez. Hain justu ere, txapelketa horren ondoren, aizkora apustu bat zegoen Tolosan. Hori amaitzean, bi australiar horietako batek enbor bat hartu eta motozerrarekin aulki bat egin zuen.

Hala, herriko festetan gauza bera egin genuen: bost lagunek hartu genuen parte eta 20 minututan aulki bat egitea zen erronka, motozerrarekin. Hiru zurgin ipini genituen puntuazioa jartzen. Datorren urtean, lan konplexuagoa proposatu genuen, basurde bat egitea. Zirauki (Nafarroa Garaia) aldeko gazte batzuek guk egindakoa ikusi eta beren herriko festetan gauza berdina egitera gonbidatu gintuzten. Furgonetan egur batzuk sartu eta harantz joan ginen. Horrela hasi ginen, gaur arte.

Garai hartan, Xabier Euzkitzek “Sorginen Laratza” saioa zuen Euskal Telebistan, beste kide batzuekin batera. Gauza berri-tzailea zenez, telebistara joan ginen, erakustaldia egiten. Horren ondoren, gure etxeko telefonoak su hartu zuen! Deika eta deika, jendea; uda hartan, 73 herri bisitatu nituen.

“Aizkorarako afizio handia izan dut, baina etorkizuna motozerrak eman dit”

LUIS ERASO ARTISAU

Hilaren 13ra bitarte izango da Luis Eraso zurgilearen erakusketa Oianumen. Bere ibilbideari gorazarre egiten dio egur-lanen esposizioak



Eraso artisaua, Oianumen bertan. AIURRI

Inertziak hasi zena ikusmira handiko hitzordu bihurtu zen...

Garai hartan, Amasa-Villabona-ko enpresa batean nengoen lanean, errelebotara. Bada, hiru urteko eszedentzia hartu nuen, baita geroago lana utzi eta autonomo egin ere, hortara espresuki dedikatzeko. Izan ere, geroz eta urrutia gotik deitzen ziguten: Toledo, Ciudad Real, Jaen, Gi-

rona... 800 herritik gora igaro ditut, egurrez betetako nire atoiarekin; toki guztiak koaderno

"ORAIN, LASAIAGO ARITZEN DIRA LANEAN. LEHEN, KORRIKA EGITEN GENUEN, ZIRT-ZART"

batean ditut apuntatuta, eskaera eta guzti; berritro, hara joan behar izanez gero, figura ez errepikatzen. Horrela 22 urte, 41 urterekin hasi eta, orain pare bat urte arte, erretiroa hartu nuen arte. Lehen erakustaldien ondoren, enkarguak eskatzen hasi zen jendea; horrela, 2005. urtean pabilioi bat egin nuen Berastegin, lantoki eta biltegi gisa.

Jaietako erakustaldietan sortutako eskulturekin zer egiten zenuten?

Herrian bertan gelditzen ziren, bertakoentzat. Zozketak egiten hasi ziren: Donostiako inprenta batetik lortzen nituen boletoak eta antolatzaileei ematen nizkien, euro batean saltzeko. Guri ordaintzeko eta irabaziak edukitzeko adinako diru-kopurua eskuratzen zuten. 2.000 lagun izan ditugu begira, eta boletotan bost euro uzten zituen jendeak, gutxienez. Pentsa!

Noiz izaten zenuen lan-kopurua handiena?

San Isidroetan hasi eta azaro aldera arte. Eguberrietan tokatu izan zaigu San Jose eta Ama Birjina egitea.

Erakustaldietan, aldatu al da denborarekin motozerra erabiltzeko modua?

Oro har, orain, lasaiago ibiltzen dira, mantsoago lanean. Gure garaian, korrika eta presaka egiten genuen, zirt-zart, erlojuari begira, atzerakontuan. Arrakasta handia izaten genuen.

Denborarekin egurra lantzeko estiloa aldatu al duzu?

Bai. Erakusketetarako “pobre” samar gelditzen baitzen, esaterako, erakustaldietan hasiera batean egiten genituen aulkiak. Denetatik egiten dut, altzarietatik hasi eta figura abstraktoetarako. Nire lanik zailena Gaztela-Mantxan egindako On Kixote eta Santxo Panza figurak dira, ordubete eta hiru ordu laurdenetan. Berezienean Onko-logikoari eman nion figura, bertan egon baintzen ni eba-kuntza batean 2016. urtean; oso ondo osatu nintzen, eta denbora luze izan nuen hausnartzeko. Hantxe dago sarreran, modu batera edo bestera, jaso nuen tratua ona eskertzeko. Nire gaitzarekin zerikusia du figurak: egur bat barrutik hutsa, gaixo dagoen pago bat bezala; barrualdean, egur gazteagoa jarri nion, aurretik aipatu dudana egur zahar hori indartzeko, neu ere horrela atera nintzelako, indartuta.

Zer nahiago: aizkora ala motozerra?

Aizkorarako afizio handia izan dut, baina etorkizuna motozerrak eman dit. Txikia nintzenean, trebea nintzen marrazketan, Hortan erraztasuna izateak laguntzen du motozerra hartzen duzunean. Egur bat ikusten dudanean, beti galdetzen diot neure buruari ea zer egingo nukeen horrekin. Egurrari bere koloreak ateratzea gustatzen zait. Berezkioa

ez baldin baduzu, zaila da. Egurra zutik jarri eta inolako markatik gabe hartzen dugu motozerra, proportziorik gabe. Arkatza batekin, orria zuriaren gainean aritzean bezalaxe, gu, motozerrarekin, enborrean. Erakustaldietan, gainera, denbora mugatua egin behar dugu, ikusleak aspertu ez daitezen. Azkar eta ondo egitea zen meritua.

Zer eduki behar du egurrak zuk begiz jotzeko, zure arreta pizteko?

Berastegiko basoetatik hartzen ditut gehienak, egur zahar asko baitago inguru horietan. Gainera, sua egiteko egur hori ez omen da egokia izaten, puskatzeko zaila delako. Nik erabiltzen ditudanek horrenbeste urte dituztenez, denborarekin, ez zaizkie zirrikituak ateratzen, alegia, emandako formari eutsi egiten dio. Askotan, bere berezko formak aprobetxatzen ditut, eta, beste hainbatetan, nik bilatzen dizkiot forma berriak.

Zer egin soberako egurrarekin?

Guztia aprobetxatzen dut, sutarako erabiltzen baitut soberakina.

Motozerra batekin soilik egiten al duzu figura osoa? Edota bestelako baliabideez ere baliatzen al zara?

Orokorrean, guztia motozerrarekin egiten dut. Ondoren, leuntzeko, koskak kentzeko, eskuak ere darabilzkit, besteak beste. **Urnietara etorrita, zenbat piezek osatzen dute zure obra?**

40tik gora, aulkietatik hasi eta figura abstraktuetara bitarte; oso dotoreak. Baserritarrek, eraikuntza munduko jendeak edota egurzaleek oso gustuko dituzte horrelakoak: gertutik ikusi, ukitu... Piezaren bat erosteko interesa duenak, galde diezadala. Hementxe izango da erakusketa, igandetik igandera, azaroaren 13ra arte.

“Migratzaileak” disko-liburu berria

Aukeran Dantza Konpainiak bere azken ikuskizuna gordetzen duen disko-liburua aurkeztu du: “Migratzaileak”. Egun bereko arratsaldean, emanaldi berezia egin zuten, Txillida Lekun. Mende laurdeneko ibilbidea bete du aurten konpainiak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

“Dantzari bat, bi dantzari, hiru dantzari galdezka. Lau dantzari, bost dantzari, sei dantzari galdezka. Zazpi dantzari, zortzi dantzari, zortzi dantzari galdezka. Zer da mugimendua? Zergatik mugitzen gara? Zein da mugitzeko dugun beharra? Zer da mugitzera bultzatzen gaituena?”. Migrazioari buruz hausnartzeko jakinmina sartu zitzaion orain hilabete batzuk Aukeran Konpainiari. Makina bat ez bai, duda, eta horiei guztiei erantzuteko... Mugimendua, zer, bestela? Bada, erantzunak dantzatu eta, are gehiago, erretratatu ditu konpainiak, berriki labetik atera berri duen “Migratzaileak” disko-liburuan. Joan den ostiralean, urriaren 28an aurkeztu zuten, Txillida Lekun. Bertan izan ziren, Edu Muruamendiaren zuzendaria Char-Lee Mito obraren ilustratzailea, Oier Guillan idazlea nahiz proiektuko gidoilari eta Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura zein Kirol diputatua. Orain bi urte hasi zen konpainia buruari eragiten, bere mende laurdeneko ibilbideari modu berezi batean gorazarre egiteko: disko-liburuak hamaika afera ukitzen ditu, hamaika kantetan, Xabier Aburrutzaga musika-konposatzailearen sormenez.



Aurkezpen ekitaldia egin zuten Txillida Lekun. AIURRI

Hitzak Oier Guillanek ipini dizkio, eta, Muruamendiaren adierazpenez, oso “hunkigarriak” dira: “Esanahiez betetako testuak dira. Disko-liburu honi zentzua handia ematen diote hitzek”. Bestalde Char-Lee Mito marrazkilariak ipini die proiektuari “kolorea eta originaltasuna”; David Herranz argazkilariaren irudietatik, nahiz entseguetan bizitakoagatik ondu ditu ilustrazioak.

Hitzak eta marrazkiak

Ez dago oso ohituta dantzariekin lan egiten Oier Guillan idazlea,

baina gogotsu eutsi zion erronkari, bidea “apasionantea bezain polita” izan baita, eta horren emaitza —besteak beste, disko-liburua—, “luxua”. Zortzi dantzarik migrazioari buruz zituzten ezinegonen isla dira hitzak, idazlearen ustez, “prozesu horren guztiaren oihartzuna, unean uneko ispilua”. Barruko ezinegonari hitzak jartzeko ariketan trebatu da, beraz, Guillan, “lerro gutxi izan arren, lerroartean asko esaten dute poema txikiek”. Bestalde, Mito marrazkilariarentzat “plazer hutsa, txundigarria”

izan da lanaren parte izatea: “Arrue anaien lanean oinarritu naiz; anaia txikiaren kolore-paleteta eta lan egiteko modu piktorikoa gustatzen zaizkit”. Hori horrela, irudietan, naturari estuki lotuta dauden animalia migratzaileak ageri dira. Gainera, erronka izan da irudiegilearentzat konpainia oso bati begira lan egitea, elementu edo pertsona batek baino gehiagok hartzen zutelako garrantzia: “Marrazkiak koralagoak dira; normalean, ni erretratistagoa naiz”. Bilbao izan zen aurkezpen-ekitaldian azkena hitza hartzen 25 urtek eman dutena “alferrikakoa ez dela” adierazteko: “Eskerrik asko, modu batean, zuek izan zaretelako migratzaile: dantza tradizionaleko erosotasunetik atera eta migrazio bati ekin zeniote. Sarri, askotan, behar den besteko berotasunik gabe, hotza zein beldurra sentituta eta migrazioak berak dituen gabeziak sentituta. Baina 25 urte geroago”, azpimarratu zuen, “hemen zaudete, koloretsu, argiz, eta hainbaten berotasunaz, elkargune izateko gaitasunarekin”.

Disko-liburuaren aurkezpenak

Konpainiaren mende laurdeneko ibilbideari aitortza egiteko, izen bereko ikuskizunaren musikan, testuan eta koreografiaren oinarritutako ilustrazioak biltzen ditu proiektuak. Ondoren, prentsaurrekoaren egun berean, arratsaldean, publikoari irekitako aurkezpen osagarria egin zen, hitzak eta dantzak, parkeko eskulturekin uztartuta. Hala, gonbidapenak azkar batean amaitu ziren eta 200 lagun inguruk izan zuten aukera parkeko berdeguneean, hego haizeko iluntzea dantza bidez, Aukeraren eskutik, gozatzeko.

ERREMONTEA TXAPELKETA 2022

BI NAKAKO

ORONA
Fundazioa
Fundazioa

AZAROAK 5 LARUNBATA
16:30ETIK AURRERA

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1.º PARTIDUA 35 TANTU
URRUTIA II - APEZETXEA
ZALDUA II - ODEI

BINAKAKO PARTIDUA 40 TANTU
ANSA II - JUANENEA
SEGUROLA - LARRAÑAGA

3.º PARTIDUA 40 TANTU
ALDABE - BARRENETXEA IV
EZKURRA II - AZPIROZ

ORIA MENDI | **ERREMONTEA BIZIRIK**

PAPELERA CLIPPERDANA DE ZORNAGA, S.L.

sukia

K

AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Xabier Madinak 69 urte ditu, baina oso aktibo mantentzen da martxa nordikoari esker. Euskal Herriko lehen txapelketa antolatzen ari da buru belarri egun hauetan. Urnietan jokatu da, eta 100-120 lagunren parte hartzea espero du. Jatorriz nordic walking, martxa nordikoa izena duen diziplinaren nondik nora-koak xehatu ditu Aiurri aldizkariarentzat.

Zer da 'nordic walking'-a, Xabier? Martxa nordikoa. Ipar martxa ere esan geniezaioke. Ibiltzean datza, bastoi bultzadarekin. **Nola izan zenuen diziplina horren berri?**

Kasualitatez. Donejakue bidea egin dut hainbat aldiz, eta egin nuen aukera batean google-eko bilatzailean jarri nuen "bastoi-kin ibili", bi lagun bastoi berezi batzuekin ikusi nituelako. Erreferentzi apur batzuk topatu nituen, baina Euskadin ezer ez. Nordic walking-a ez zen existitzen gurean duela hamabost urte. Martxa nordikoko Espainiako Federazioko Evelin Feussner buruarekin harremanetan jarri nintzen, hastapen ikastaro bat egin, eta hiru hilabetera lehen mailako irakasle titulazioa lortu nuen.

Gurpila jiraka hasi zen, eta orduz geroztik ez da geratu.

Zorionez ez. Euskadi osoan ikastaroak ematen hasi nintzen, eta formazioarekin jarraitu nuen, bigarren mailako ikastaroa osatuz. *Alfa coach* eskola edo diziplinako gaitasuna ere lortu nuen, orduan sei lagunek bakarrik genuena Espainia osoan. Hirugarren mailako gaitasuna da. 2017az geroztik formazioan murgilduta nago. Hainbat bideo publikatu ditut, martxa nordikoa zabaltzeko asmoz, helburu ekonomikorik gabe. Esan nezake martxa nordikoko erreferente bilakatu naizela azken urtetan.

Atentzioa eman dit Mendi Federazioko kide dela martxa nordikoa, eta ez atletismokoa. Zergatik?

Politika kontuak dira. Frantziar atletismo federazioko kide da martxa nordikoa, baina gurean mendikoa. Italian bi federazioetan ere polemika egon zen. Zer da, atletismoa edo mendia? Litzentzia kopurua lortzeko aukerak halako egoerak sortzen ditu. **Zergatik egin beharko genuke martxa nordikoa?**

“Kirol jarduera osasungarria da, gorputz atal asko erabiltzen baitira

XABIER MADINA MARTXA NORDIKOKO IRAKASLE ETA ANTOLATZAILEA

NORDIC WALKING Igandean Euskal Herriko Martxa Nordikoko lehen txapelketa antolatu dute Urnietan; gero eta herritar gehiago dira diziplina horretan murgiltzen direnak



Xabier Madina. AIURRI

Osasun arrazoiengatik. Munduko Osasun Erakundeak astero bi ordu eta erdiko kirol jarduna aholkatzen du, bihotz eta hezur arazoak saiheste aldera, baina ez du aholkatzen ze kirol diziplina egin. Nik, noski, martxa nordikoa aholkatzen diet herritarrei. Ekonomikoki ez da garestia, eguneko edozein unetan egin dezakezu. Eguraldi txarreakin ere egin daiteke. Ñabardura bat egin nahi nuke. Paseatzea edo ibiltzea ez da martxa nordikoa. Martxa nordikoa aktiboki ibiltzea da; ondo ibiltzea, gorputzeko atal asko erabiliz, eta bastoiak gehituz. Korrika egiteak artikulazio eta hezurretan arazo asko sor ditzake. Bizikleta egokiagoa da, baina hanka zuztarrak lantzen dituzu batez ere. Martxa nordikoa ipar eskitik edo eski nordikotik dator, eta diziplina hori kirol diziplina osoenetakoa da, gihar edo gorputz atal gehien erabiltzen duenetakoa.

Non sortu zen?

Finlandian, XX. mendeko 30. hamarkadan. Elurrik egin ez zuen neguren batean sortu zuten, entrenatzen jarraitzeko. Eski

nordikoko bastoiekin, noski. *Sauvakavely* deitzen diote Finlandian, eski bidea euskaraz. 90. hamarkada arte erdi ezkutuan egon zen, baina orduan Marko Kantanevak tesia egin zuen martxa nordikoari buruz, eta orduan mundu guztian barrena bastoiak saltzeko proiektu komertzial erraldoia gorpuzten hasi zen. Alemanian izan zuen segida urte batzuk geroago. Han alfa sistema delakoa garatu zuten, jendearen osasuna hobetze aldera. *Alfa* hitzeko a hizkiak tente eta zuzen esan nahi du; l hizkiak besoa luze, f hizkiak hirukia osatu hanka eta bastoiaren artean, eta azkeneko a hizkiak pausoa egokitu.

Bastoi bultzadarekin ezinbestekoa da martxa nordikoa. Zergatik?

Bultzada eta oreka ematen diolako ibilerari. Bastoiekin pauso luzeagoa egingo duzu, eta oinez baino azkarrago joaten zara. Teknika berezia ikasi behar da, eta ikastea ez da erraza, hori aitortu behar da. Ordu batzuk egin behar dira ikasten, eta teknika hobetzen.

Esan duzu ikastea ez dela erraza. Zergatik?

Oso diziplina teknikoa delako. Hasieran jendea ez da jabetzen teknika zaila dela. Jende asko dago bizitza osoa korrika edo oinez ibilitakoa, baina bai korrika, edo bai oinez trakets, gaizki ibiltzen dena. Bultzada da gakoa, bultzadaren keinua ondo egitea. Ikastaro bat eman ondoren parte hartzaileei hobetzen jarraitzeko bitartekoak eskaintzen dizkiet. Martxa nordikoak badauka paradoxa bat. Zenbat eta hobe menperatu teknika, orduan eta gutxiago nekatzten zara, odolaren oxigenazioa handiagoa baita teknika hobetzen duzun heinean.

Zein da martxa nordikoaren egoera Euskal Herrian eta Urnietan?

Mikel Izagirre eta Leo Carmona dabilta sutsuen herrian une hauetan. Gipuzkoan 70 bat lagun egongo dira federatuta, denera, eta kirolariak, guztira, 200 bat inguru dabilta Ultreia MN elkartearen baitan. Urnietan 20-30 bat lagun gabilta egurrean.

**IGANDEKO PROBARI
BEGIRA, OSTIRALA
BITARTE IZENA EMAN
DAITEKE HERRIKROSA.
EUS WEBGUNEAN**

**"MIKEL IZAGIRRE
ETA LEO CARMONA
DABILTZA SUTSUE
HERRIAN UNE
HAUETAN"**

Ulteia esan duzu. Zer esanahi du izen horrek?

Donejakue bidera bueltatzen gara berriro. Bide horretan bigileek elkarri botatzen dioten agurra da, latineko hitza: segi aurrera esan nahi du.

Urte batzuk atzera jendeak arraro begiratzen zintuzteten, bastoiekin ziztu bizian eta modu berezian ibiltzen zinetelako. Aldatu al da egoe-ra hori?

Beno, oinarritzko akats baten ondorio da pentsaera hori. Jendeak bastoiekin ikusten gaitu, eta adineko jendearentzako kirola dela uste du. Ez da hala. Edo gaixoentzat dela, bastoiekin zoazelako. Golf-ak ere kirol erraz edo sinplearen sona du, baina oso kirol teknikoa da. Martxa nordikoa antzera.

Lehiaketa antolatu duzue igandeko. Xehetasunak ematerik bai?

Ez da erraza lehiaketetan parte hartzea, teknika ondo menderatu behar delako parte hartze-ko. Lehiaketak, dena den, kirol diziplina honen %10 baino ez dira, izozmendiaren punta baino ez. Niri formazioa, eguneko jarduna interesatzen zait gehiago.

Nolakoa da zirkuitua, eta nondik nora doa?

Zirkuituak 3,8 kilometro ditu, eta federatuek hiru itzuli eman beharko dizkiote. Open kategoriakoek, federatu gabekoek, bi itzuli. Kiroldegian hasiko gara, Lekundik Ergoien industria-poligonoraino joan, erre-pidea gurutzatu, eta Oianume-ko atzealdek IAT-raino. Handik herrira buelta, eta kiroldegira iritsi baino lehenago, Akan kalean, berriro zirkuituari ekin, Belandi kaletik Lekun aldera eginez. 10:30etan hasiko da federatuen lasterke-ta, eta federatu gabekoak federatuek lehen itzulia osatu ondoren. Sei epaile egongo dira lehiakideen teknika zaintzen. Kilometroa sei minutuan egiten dute azkarrenek. Hori oso erritmo bizia da korrika egin gabe! **Zenbat lagunere parte hartzea espero duzue?**

100-120 inguru. Kopuru ona litzateke hori.

"ZIRKUITUAK 3,8 KILOMETRO DITU, ETA FEDERATUEK HIRU ITZULI EMAN BEHARKO DIZKIOTE"



Aurtengo edizioaren aurkezpen ekitaldia. SHERPA.AI

Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian ariko da Nerea Arruti

HERRI KIROLAK Bertan izango da urnietarra, pentatloieko txapelduna eta, azken asteetako, fenomeno

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 13an ospatuko da txapelketa, Bilbao Arenan, eguerdiko 12:00tan hasita. Sei gizon-nezko hartuko dute parte: besteak beste, Eneko Otañok, Mikel Larrañagak, Ugaitz Mugarzak, Julen Alberdik, Ibai Soroak eta Txomin Arzaloak. Eta hiru emakumezko, tartean, Nerea Arruti urnietarrak. Azken honek, lehiaketan parte hartze-ko gogo bizia adierazi du: "Ilusio handia egiten didan lehiaketa bat da; ikusgarria da eta jende asko erakartzen du. Gainera, fisikoki punta-puntan nagoela esan nezake, urteko memento hoberenean". Arrutik Irati Astondoaren eta Uxue Ansozregiren aurka lehiatu beharko du.

Aurreko edizioan bezalaxe, Txapelketak informazioa eskainiko du webgunea eta Instagram profila baliatuta.

Kultura eta kirola uztartuz

Txapelketa nagusian, goi mailako musikariek ere hartuko dute; hala nola Sünec, Zetakek eta Zea Maysek. Euskal kulturari ikusgaitasuna eman eta herri-kiroletan gertutasuna sustatzea dute xede.



Nerea Arruti pentatloian. NEREA ARRUTI



AIURRI

Irazuren garaipena debutean

ERREMONTA Jon Irazuk debuteko partida garrantzitsua irabazi zuen Zaldia lehenengoarekin batera (32-35). Odei eta Zaldia bigarrena eduki zituzten aurkari. Gainera, Behar Zana frontoia goraino bete zen, lagunez, senitartekoez eta zaleez. Giroa izugarria. Lehen tantotik ez zuen animo faltarik izan, eta, hala, jokatu zuen partida ere: tantoz tanto.



GAZTELEKU

Ponce eta Alkorta maila onean

PALA Koldo Poncek eta Xabier Alkortak ezin izan zuten paleta larruz finala irabazi eta txapela preziatua eskuratu; baina denboraldi ikusgarriaren ostean, bigarren mailara jauzi egingo dute. Andoaindarrak gazteak, urte urte eta partidaz partida lehiatzen ari dira, gutxinaka, emaitza ikusgarriak lortuta.



Urnietako
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGURDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 3

ANDOAIN Erakusketa

"Bidai apunteak", Udane Juaristi margolaria.

Bastero, erakusketa gela.

ANDOAIN Dokumentala

"Un mundo pequeño", eskola jazarpenari buruzko filma.

20:15, Bastero.

ANDOAIN Gonbidapenak

Anari kantariak emanaldia eskainiko du Basteron, azaroaren 25ean. Gonbidapena lortu behar da, eta dagoeneko eskuratu daitezke ohiko bideetatik.

Bastero.

OSTIRALA 4

ANDOAIN Plaza-dantza ikastaroa

Helduentzat ikastaroa, Urkiren eskutik. Informazioa: 629 37 51 47. *Azken eguna.*

LARUNBATA 5

ANDOAIN Herri bilera

Herri plataformak antolatuta. *11:00, Bastero.*



Golfa antzezlan, ostiral honetan Andoain.

ANDOAIN "Golfa" antzezlan

Goiz batean, institutu baten ate aurrean, Golfa izeneko pintada bat agertzen da. Pintadaren aurreko istorioa erakusten duen irain anonimo bat da. Jazarpen birtualari buruzko antzezlan.

Azaroak 4, ostirala. 19:00. Bastero. 12 euro.

ASTEARTEA 8

ANDOAIN Mahai-ingurua

Euskararen erabilera, Euskaraldiak eta ENBAK antolatuta. Hizlariak: Peio Manterola, Andoni Etxezarreta, Garbiñe Agirre.

18:30, Bastero Kulturunea.

OSTIRALA 11

ANDOAIN Sari banaketa

Martin Ugalde ipuin lehiaketa, 10-17 urtekoei zuzendutakoa. XXVI. edizioari dagokion sari banaketa ekitaldia.

18:30, Bastero Kulturunea.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO****La piel del tambor**


Larunbata, 5.
19:30, 22:00.
Igandea, 6. 19:30.
Astelehena, 7.
19:30, 22:00.
(Ikuslearen eguna).

Los buscamundos

Lar., 5. 17:00.
Igandea, 6. 19:30.

El cuarto pasajero

Larunbata, 12.
19:30, 22:00.
Igandea, 13. 19:30.
Astelehena, 14.
19:30, 22:00.
(Ikuslearen eguna).



AIURRI

Francis dendaren itxiera

Francis Llamasek Kaleberriko pertsiana betiko jaitsi zuen, urriaren 31n. 35 urtetan eduki du irekita, bus geltokiko pare-parean, eta erretiroa hartu du jada. Dendak ez du segidarik izango beste inorekin, eta herrira begira jarrita, ezkor agertzen da dendari txikien etorkizunaren gainean. Bere azken lan-egunean, Aiurri adierazi zionez, bezero fidel ugari eduki ditu, belaunaldiz belaunaldi hurbildu zaizkionak aholku eske eta era askotako jantziak erostera: "Betiko zein aldian aldiko bezeroei, bihotzez eskerrak eman nahi nizkieke, 35 urtetan Francis jantzi-dendarekin erakutsi duten konfiantzagatik eta fidelitasunagatik".

ERREZITALDI MUTANTEA **Frankenstein agurgarria (Petti eta Ana Galarraga)**

azaroak 11, **OSTIRALA**, 20:00 Sutegi



BAKARRIZKETA **Magma Mia. Beatriz Egizabal**

azaroak 13, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

FILM EMANALDIA **Black is Beltza II. Ainhoa**

azaroak 18, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA **Zeozertan dabil baina ez dakit zertan**

Metrokoadroka kolektiboa

azaroak 19, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi

Sarrerak: aldeztu aurretik saigai usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan.

NOAUA/KO KULTURALDIA 2022 **USURBIL AZAROA**



80^s
PARTY
MOZORROTU!!

NAFARROA PLAZA

ESPIGOIAN

ZUMEA PLAZA

AZAROAK
ANDOAIN

5

DJ 18:00
MUSIC 19:30

DJ 19:30
MUSIC 21:00

DJ 21:00
MUSIC 23:00

Euskaraldiaren
ekitaldia Urnietan,
larunbat honetan

Zubitxo plazan izango da Euskaraldiaren aurkezpen festa, larunbat honetan, 12:00ak aldera hasira. Herriko zenbait eragilek hartuko dute parte bertan.

Datorren azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitarte egingo da aurtien Euskaraldia, eta, Urnietan, hori iragartzeko festa izango da larunbat honetan, hilaren 5ean. Eguerdi partean, Zubitxo plazan, ekitaldi nagusia egingo dute tokian tokiko antolatzaileek, herria girotzen joateko hainbat ekintza antolatzearekin batera. Bertan, Egape Dantza Taldeak koreografia bat dantzatuko du, Kantazaun elkarteak zenbait abesti kantatuko ditu eta bertso eskolako kideen bertsoak entzuteko aukera ere izango da.

Hortaz gain, gune ibilitaria egongo da, Euskaraldiko arropa eta materiala erosteko aukerarekin. Euskaraldian parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera ere izango dute, ahobizi edo belarriprest rolean aritzeko.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Xabi!!!
Txokolatezko 7 muxu, 11 txiribuela, 9 txalo, bina belarri tirakada eta beste lau argi besarkada. Denera 35 bira eguzkiari, zorionak aitatxo!



ANDOAIN
Zorionak Maddalen eta Xabat
Urriaren 22an Maddalenek 6 urte bete zituen eta azaroaren 7an Xabatek 11. Zorionak bieie etxekoan partez, muxu handi bat.

Zenbat euskara erabiltzen da Andoaingo kaleetan?

Kale-neurketaren emaitzen aurkezpena eta mahai-ingurua

Parte-hartzaileak: Gorbille Agirre, Andoni Etxezarreta eta Pello Monterola

AZAR 8, asteartea | 18.30 Bastero kulturunea

AZAROAK
25

INDARKERIA MATXISTAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

INDARKERIA MATXISTAK.
ISLADAK GAZTEENGAN

Urigain Etxea. 08:00-14:30
943 300 830 (luz. 380-397)
berdintasuna@andoain.eus
@BerdinAndoain Berdintasuna Andoain
andoainberdintasuna

ANDOAINGO UDALA

Azaroak 4, ostirala
ANTZERKIA: "GOLFA"
ANTOLATZAILEA: KULTURA SAILA
Bastero kulturunea, 19:00

Azaroak 22, asteartea
MAHAI-INGURUA
Nerabetasunean ematen diren indarkeria matxistak eta indarkeria sexualak. Ikusi, aurre hartu, esku hartu. Partaideak:
• **Miriam Aleman Calatayud.** Hezitzailea, filosofoa, komunikatzailea. Nerabetasuneko sexu indarkerian eta indarkeria digitaletan aditua (Cooperativa Candela, Bartzelona).
• **Patricia Temprano Conde.** Nerabeen arteko indarkeria matxistako psikologo espezialista. Bortxakeria matxistaren biktima gazteei arreta osoa emateko GFAko unitatearen arduraduna (EDE Fundazioa).
• **Izaro Auzmendi Sarasa** eta **Aitor Altuna Etxabe** (Arremanitz kooperatiba); Andoaingo Harremonak egitasmoko hezitzaileak. Sexuen hezkuntza eta indarkeria matxisten prebentzioa, tratu onen ikuspegitik.
Dinamizatzailea:
• **Sheila Melcón.** Psikologo aditua indarkeria matxistetan (Sortzen consultoria).
ANTOLATZAILEA: BERDINTASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK LANSAILAK.
MAHAIA ELEBDUNA IZANGO DA. EUSKARA-GAZTELANIA ALDI BEREKO ITZULPENA EGONGO DA.
Bastero kulturunea, 18:30

Azaroak 24, osteguna
FILMA: "Hacer las cosas como una niña"
(Ondoren, familiekin hausnarketa).
Ludoteka, 17:00
LANTEGIA: "Komunikazio positiboa gazteen artean"
(12-18 urte bitarteko nerabeentzat).
Gazte Lokala, 17:30
Azaroak 25, ostirala
TXAPA LANTEGIA
Gazte Lokala, 17:30
INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUME BIKTIMEI ETA BIZIRIK ATERA DIRENEI OMENALDIA
Goikoplaza, 19:00
KONTZERTUA: "ANARI"
ANTOLATZAILEA: BERDINTASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK LANSAILAK.
Bastero kulturunea, 20:00
Azaroak 26, larunbata
AUTODEFENTSA FEMINISTA
Allurralde kiroldedia, 09:30-15:00

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

ANDOAIN

AZAROAK 17; OSTEGUNA

Pintxopottotte

19:00tan hasita

BURRUNBA

**ELEKTROTXARANGA
TABERNETAN**

- Bastero
- Hiru
- Traiñerum
- Irunberri
- Txindoki
- Gaztelutxo
- Muga
- Amama Klaudia
- 97
- Txuri-beltz
- Txitibar
- Danena
- Txalaka



EUSKARALDIA

**ELEKTROPOTTOTTE
ELEKTROTXARANGA**

ZUMEA PLAZA, 20:30

